## Urola Erdia

# Hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko kanpaina abian jarri dute Azpeitian

### ZORIONAK, ZALANTZAK ETA KEXAK AZALTZEKO **KUTXAK** IPINI DITUZTE

**Herritarrek izen abizenak eman behar dituzte, nahiz eta "konfidentzialtasun osoa" mantenduko den**

JABI LEON

AZPEITIA. Azpeitiko Udaleko Euskara mahaiko eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiko ordezkariek hizkuntza eskubideen inguruko urraketak salatzera gonbidatzeko kanpaina abian jarri dute Azpeitian.

Paul Rios, Behatokiko zuzendariaren hitzetan, ekimenaren helburu nagusia "herritarrak, euskaldun gisa bizi nahi izateagatik izan ditugun eskubide urraketak salatzera bultzatzea da".

Bere ustetan, oraindik asko dira euskaldunak baztertzen dituzten tokiak eta eragileak. "Medikuaren kontsultan gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen digutelako, informazio komertziala gaztelania hutsez bidaltzen digutelako edo hainbat informazio euskaraz jasotzeko eskaera luzatu ondoren ematerako orduan trabak jartzen dizkigutelako".

Edonolá ere, Azpeitiko bizilagunek hizkuntza eskubideen inguruko zalantzak argitzeko edo merezi duen erakundeari zorionak emateko parada ere badute. Kanpaina berriaren bidez, azpeitiarrek salaketak eta bestelako ekarpenak era erraz batean bideratzeko aukera dute jada. Horretarako, kutxa batzuk ipini dituzte Udalak ohiko gomendioak jasotzeko dituen buzoien ondoan (udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta igerilekuetan).

Era berean, herritarrek leku horietan eskuratu ditzakete bete beharreko inmprimakiak. Orriak bete eta aipatutako kutxetan sartu ondoren, Hizkuntza Eskubideen Behatokira bideratuko dira, "kexak, zorionak eta argitu beharreko zalantzak behar diren tokira helarazteko".

Inprimakiak betetzerako orduan, herritarrek izen-abizenak eman behar dituzte baina ekimenaren bultzatzaileek, Datuen Babesaren Legeari jarraiki, "konfidentzialtasun osoz" jokatuko dute, eta ondorioz, kexa jartzailearen daturik ez diote inori emango.

Nolanahi ere, Azpeitian ipinitako kutxa hauez gain, salaketa, zorion edo zalantzak www.behatokia.org web gunearen bitartez edo 902 194332 telefonora deituz bidera daitezke.

Euskara mahaiak herritar guztiak animatzen ditu "hizkuntza eskubideen urraketen aurrean jarrera aktiboa hartu eta kanpainan parte hartzeko". Beren ustetan, "banaka egiten dugun apur horrek emaitzan handiak ekar ditzake".



Azpeitiko Euskara mahaiko kideak Paul Rios Behatokiko zuzendariarekin kanpainaren aurkezpenean.

## Debabarrena

### EIBAR DECIDE LOS PROYECTOS QUE FINANCIARÁ CON AYUDAS DE LAKUA

**Se destinarán 690.000 euros para instalar tres ascensores, una rampa y un aseo público**

EIBAR. El Ayuntamiento de Eibar ya ha determinado los proyectos que presentará para que sean financiados con las ayudas que concede el Gobierno Vasco para la ejecución de obras de mejora de la accesibilidad en el entorno urbano.

Las actuaciones planteadas supondrán una inversión aproximada de 690.000 euros.

La mayor parte de esa cantidad se destinará a instalar tres ascensores (en J.A.Mogel y en los números 24-26 y 28-30 de la calle Barrena), aunque también está previsto invertir 31.792 euros en la construcción de una rampa para acceder al colegio público San Andrés y otros 61.000 euros para instalar un aseo autolimpiable en la vía pública. >J.L.

### Elgoibarko Udalak 2010eko egutegirako argazkiak aukeratu ditu



ELGOIBAR. Udaleko eta Ongarriko ordezkariek 2010eko egutegirako argazkiak aukeratu dituzte jada. 50 herritarrek 137 argazki aurkeztu dituzte guztira lehiaketara, eta aukeratutako irudien egileak ondorengoak dira: Carlos Esteban (2 argazki), Alberto Fernández, Andoni Rementeria (2), Iñaki Beristain, Ángel Vicario, Aitor Zabala, Aitor Rementeria, Eulogio Mancebo, Asier Izagirre eta Manu Sánchez. ARGAZKIA: ALBERTO FERNÁNDEZ

### ELGOIBAR > La ciudadanía puede conocer las conclusiones del diagnóstico de convivencia

La casa de cultura de Elgoibar acogerá mañana, a partir de las 18.30 horas, una reunión organizada con el objetivo de dar a conocer las conclusiones del diagnóstico de convivencia realizado en la localidad de la mano de la fundación Gizagune y con la participación de los ámbitos político, asociativo y ciudadano. El acto está abierto a todas las personas interesadas. >J.L.

### Ezker Abertzaleak hainbat proiektu geratzeko eskatu du "arau berriak onartu arte"

Ezker Abertzaleak Elgoibarren egitekoak diren proiektu handiak gelditzeko eskaera luzatu dio Udaleko alkatetzari. Taldekoen ustetan, "etorkizunera begira eragin handia izan dezaketen erabakiak arau berriak onartu eta gero hasi behar dira egiten, bestela herritarren partaidetzari buruz esandako guztiak ez du ezertarako balio". Ildo beretik, taldeak egoitza berriaren kokapena berriro aztertzeko eskaera egin du, "agian Pilarreko kokapena baino proposamen hobeak daudelako". >J.L.

### La Musika Eskola de Elgoibar celebrará el sábado Santa Cecilia con un recital especial

El Herriko Antzokia de Elgoibar acogerá el sábado, a partir de las 12.30 horas, un concierto especial de Santa Cecilia, en el que participarán alumnos, ex-alumnos y profesores de la escuela de música, que este año celebra su 25° aniversario. Además, los trikitilaris de la escuela realizarán sendos pasacalles mañana (19.00 horas) y el viernes (18.00 horas), con la particularidad de que el alumnado de la musika eskola también ofrecerá este viernes su tradicional concierto de Santa Cecilia (a las 19.30 horas en el auditorio del centro). >J.L.

### EIBAR > El servicio municipal de Igualdad organiza un curso de autodefensa para mujeres

El Servicio de Igualdad del Consistorio de Eibar ha organizado un curso de autodefensa para mujeres, que se impartirá el 19 de diciembre en el Polideportivo Ipurua. El curso está abierto a todas las mujeres "independientemente de su condición física y de su edad" y será impartido por Maitena Monroy, que tratará de ir "mucho más allá de la mera asimilación de recursos para enfrentarse a situaciones concretas de agresión". Las personas interesadas en apuntarse o en recibir más información deben apuntarse en la oficina de atención a la ciudadanía antes del 27 de noviembre. >J.L.

### Mañana se celebrará una reunión informativa sobre las guarderías de Urki y Amaña

El departamento de Euskara y Cultura del Ayuntamiento de Eibar invita al conjunto de la ciudadanía para que asista a la reunión organizada para mañana con el objetivo de ofrecer información en torno a las nuevas guarderías acondicionadas en los patios de las escuelas de Urki y Amaña. La reunión informativa dará comienzo a las 19.00 horas en el salón de Plenos del Consistorio armero y estará abierta a todas las personas interesadas de la ciudad. Según las previsiones, los nuevos equipamientos estarán en condiciones de comenzar a funcionar el 1 de marzo de 2010. >J.L.

Created with novaPDF Printer (www.novaPDF.com). Please register to remove this message.